



Idazkaritza
2023IERR0001

AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOA EGITEKO INFORMAZIO AGIRIA

Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 133.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, arauak egiteko prozeduraren baitan herritarren partaidetza hobetzeko asmotan, Ordenantza aldatu aurretik, kontsulta publiko bat egin behar da Elgoibarko Udalaren web atariaren bitartez, egingo den arauak eragin ditzakeen herritarrek eta erakunde nahiz elkarte esanguratsuenek ondorengo arloen inguruan izan dezaketen iritzia jasotzeko:

- Ekimen honen bidez konpondu nahi diren arazoak.
- Araua onartzeko premia eta egokitasuna
- Arauaren xedeak.
- Aukeran egon daitezkeen konponbideak, arauzkoak eta arauz kanpokokoak.
- Partaidetzarako bideak

Kontsultaren tramitea egin ostean, eta aurkeztutako proposamenak aztertu eta Ordenantza onartzeko prozedurari ekin ondoren, Ordenantzaren zimborroa argitaratuko da dagokion web atarian, eragindako herritarrek, beste behin ere, entzunaldia egiteko aukera izateko; eta hartara, egokituz jotzen diren ekarpen gehigarri guztiak jasotzeko (Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.2 artikulua).

A.- Ekimen honen bidez konpondu nahi diren arazoak

Elgoibarko Udalak beharrezkotzat jo du Elgoibarko adinekoentzako autonomia sustatzeko zerbitzua arautzea.

Zerbitzu honen prestazioak eskatzen du zerbitzuaren funtzionamendu arauak ezartzea.

B.- Araua onartzeko premia eta egokitasuna

Autonomia sustatzeko zerbitzua arautzen duen udal araudirik ez dagoenez, beharrezkotzat jotzen da hura arautuko duen araudi erregulatzailerik bat ezartzea.

C.- Arauaren xedeak

Araudi honen helburu nagusia da baliabidearen hartzaileak, sarbide-prozedura, eta haren erabilera eta erabilera-baldintzak zehaztea.

D.- Aukeran egon daitezkeen konponbideak, arauzkoak eta arauz kanpokokoak

Ez dago aukerako konponbiderik, adinekoentzako autonomia sustatzeko zerbitzuko funtzionamendu baldintzak arauen bidez erregulatzeko ez badira.

E.- Partaidetzarako bideak

Behar bezala identifikatutako herritarrek, erakundeek eta elkarteek, hala nahi izanez gero, iritzia eman eta iradokizunak aurkeztu ahal izango dituzte partaidetza@elgoibar.eus helbidean, 2023ko azaroaren 24ra arte.

ALKATEA

Sinatzailea/Firmante	ALKATEA	Maialen Gurmuxaga Uranga	
Kodea/Código	S23/3356	Udala/Ayto.	Elgoibar
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortaIV/r/0/100/AAAAT2XNT.YcKu		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen baliotasuna egiaztatzeko ondorengo webgunean sar zaitez edo QR irudia irakur ezazu. / Este documento se ha firmado electrónicamente. Para verificar la validez acceda a la WEB o lea la imagen QR			

